

"Trantsizio energetikoaren aktore garrantzitsua"

Abenduaren 10ean, Petronorreko lehendakariak, **Emiliano Lopez Atxurrak**, 300 lagun bildu zituen enpresako Urteko Jardunaldian, Petronor "trantsizio energetikoaren aktore garrantzitsua" izango dela azpimarratu zuen.

Lopez Atxurrak, bide honetan lankidetzak, bai barrukoak bai aktore teknologikoei dagokienak, edo jarrerak daukaten garrantzia nabarmendu zuen, jarrera "erabakigarria delako, arazo berriei ezin baitzaie soluzio zaharrak aplikatu" eta beharrezkoa delako erronkei "modu irekian" ekitea.



Gainera, "munduak aurrera egitean" teknologia tresna eraldatzailea bihurtu dela adierazi zuen eta berrikuntza teknologikoa eta transformazio produktiboaren arteko harremana azaldu zuen. Azkenez, belaunaldiarteko elkartasunak egunero lanari ekiteko daukan garrantzia nabarmendu zuen, "etorkizuna daukan proiektu batekoa izatearen harrotasunaz".

Bestalde, Petronorreko kontseilari ordezkariak, **Jose Gregorio Luquek**, 2019ko gertaerak berrikusi eta urte berrirako dauden erronkak aipatu zituen eta "eraginkortasuna hobetuz hoberenen artean egotea posible dela" azpimarratu zuen. **Juan Antonio Carrillo** de Albornozek, Petronorreko Industria-Negozio eta Trading-eko zuzendariak, 2020 "Petronor bezelako birfindegi batentzat aukeraz beteta dagoela" edierazi zuen.

Petronor, 1968an sortu zena eta urtean 12 milioi tona petrolio gordin ekoizteko ahalmena daukana, gaur egun Espainiar Estatuko birfindegi handiena da.

940 langile eta 6.200 laguneko eragindako okupazioarekin, azken bost urteotan 1.200 milioi euro inguruko inbertsioak burutu ditu.

Hasieratik Bilboko portuari oso lotuta, **Petronorrek**, Muski-zko birfindegiaren eraikuntza, Bizkaiarentzat funtsezkoa izango zen Lucero Puntako kaiaren finantziaketarekin elkartu zuen, birfindegiari sakonera handiko portu batera heldu ahal izatea ekarriko liokeen lehiakortasun abantaila aurreikusiz ■

Komunikabideek saritua

Avia - Esergui, Donostiako Onda Cero irratia emandako 2019ko Gipuzkoako Enpresaren Saria jaso du.

Sari hau, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak aurten go apirilean ere Esergui Enpresa Onena izateagatik emandakoari gehitzen zaio.

Saria **AVIA**ko zuzendari nagusiak, Aitor Egurrolak jaso zuen. Aipatutako honen ekitaldia, **Avia-Esergui** familia osoari eskerrak



emateko eta honako hau nabarmentzeko aprobetxatu zuen: "Gure konpromisoa eta profesional bikain askoren lanari esker, gaur egun **Avia-Esergui**, nazioko petrolio operadore independente nagusietako bat bihurtu da ■



HONAKO HAUETAN EGONGO GARA:

FRUIT LOGISTICA

2020ko otsailaren 5etik 7ra

BERLIN

INTERMODAL SOUTH AMERICA

2020ko martxoaren 17tik 19ra

SAO PAULO

BREKBUK EUROPE

2020ko maiatzaren 26tik 28ra

BREMEN

BIEMH

2020ko maiatzaren 25etik 29ra

BILBAO

INFORMAZIO GEHIAGO:
info@uniportbilbao.es